



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

2017/12/01

Batzar Nagusiek ez dute onartu Bilboko Portuan horma bat eraikitzea geratzeko EH Bilduk egindako proposamena

Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordeak gaur ez du onartu Bilboko Portuan lau metroko hormaren eraikuntza geratzeko arauz besteko proposamena.

EH Bildu Batzar taldeak proposatu du ekimena, eta Bilboko Portuko Agintaritzak eraikitako lau metroko hormarekin Bilbao-Portsmouth sarreran "polizoiak sartzea eragotzi nahi dela" esan du; gainera, Melillako eta Mexikoko harresiekin alderatu du. Proposamena Podemos Bizkaia taldeak ere bultzatu du, eta honela argudiatu du: "Giza Eskubideen kontua" da hau, "etorkizun hobearen bila dabilen jendea" baitago. Bestalde, Talde Mistoak ondorengo adierazi du: pertsona horiek, "gehienak Albaniatik datozenak", ez datoz Bizkaira, baizik eta "Britainiara Handira joan nahi dute legezkoa ez den bidetik, ferryan sartuta".

Euskal Sozialistak taldeak esan du horma hau, "ez labaingarria eta ebakien aurkakoa", hartu den neurri bat dela "ikuspegi humanitario eta segurtasunaren aldetik"; izan ere, Bilboko portua "puntu kritikoko azpiegitura" da.

Ekimenak Podemos Bizkaiaren eta EH Bildu sustatzailearen botoak jaso ditu; azkenik, ordea, onartu gabe geratu da.

ZEHARKAKO POLITIKAK BIZKAIA.EUS WEB GUNEAN

Bestalde, EH Bilduk bizkaia.eus web orrialdearen egituraketaren eta zeharkako politikak nabarmentzeko aukeraren inguruan proposaturiko gaia jorratu du Batzordeak; EH Bilduk orrialde hori "ez dela egokiena" arrazoitu du. Eusko Abertzaleko Ibone Bengoetxeak puntu horren ganean ziurtatu du "gauza bat direla zeharkako politikak eta bestea nola kokatzen diren". Web gunea berritu berria da erabil errazagoa izateko helburuarekin. Hala ere, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errazten duten argitalpenetan deskribapen labur bat gehitzeko konpromisoa hartu du.

BALMASEDATIK JUDUAK KANPORATZEKO 1486KO LEGEA

Talde Mistoko Arturo Aldecoak arauz besteko proposamena aurkeztu du, Bizkaiko Batzarrek 1486. urtean onartutako Legearekiko desadostasuna agertzeko; hain zuzen ere, sinesmen juduko edozein pertsona Balmasedatik kanpora botatzea onartzen zuen. Euskal Sozialistak taldeak ziurtatu du onarpen horrek oro har balio dezakeela antzeko kasuak onartzeko, eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

gainerako taldeak "errebisionismo historikoaren" aurka agertu dira; beraz, proposamena onartu gabe geratu da.

IBILGAILU OFIZIALEN KOPURUA MURRIZTEA

Ekimena Euskal Talde Popularrak aurkeztu du Foru Aldundiko Goi Karguen zerbitzuko ibilgailu-kopurua murrizteko asmoarekin (egun, 33 ibilgailu). Eskaera arrazoitzeko, Javier Ruiz Egaña bozeramaileak beste probintziak eta erkidegoak aipatu ditu; esate baterako, Balear Irletan 25 ibilgailu omen dituzte. Euskal Sozialistak nahiz Eusko Abertzaleak taldeek adierazi dute agintaldi honen lehen urteetan nahiz aurreko agintaldietan kopurua murriztu dela. Bestalde, Talde Mistoak proposatu du, araz besteko proposamenaz haratago, parametro batzuk definitzeko azterketa bat egitea; hala nola, zein ordutan erabiltzen diren gehien ibilgailuak edo zein lekutara joaten diren gehien, "optimizatzen saiatzearren".

KONTRATAZIO-KLAUSULEN URTEKO TXOSTENA BATZARRETARA ERAMATEA

Auzitegi Gorenak 2013an hartutako erabakia aipatu du EH Bildu taldeak; hau da, Gobernu Kontseiluak kontratazio-organoen kontrol-txostenak Bizkaiko Batzar Nagusietara bidaltzeko derrigortasunetik salbuesten zituen. Batzar-taldeak praktika horri berriro ere heltzea proposatu du. Dena den, Euskal Sozialistak eta Eusko Abertzaleak taldeak proposamen horren aurka agertu dira, "gustukoa izan ala ez" Auzitegi Gorenaren erabakiak hori galarazten duela argudiatuz. Era berean, Euskal Sozialistak taldeak azaldu du kontratu horiek web orrialdean zintzilikatuta daudela, eta gardentasun-eskaera hori betetzen dutela. Proposamena, azkenean, onartu gabe geratu da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

01/12/17

Las Juntas Generales rechazan la propuesta de EH Bildu de paralizar la construcción de un muro en el Puerto de Bilbao

La comisión Institucional, Buen gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia ha rechazado hoy la propuesta de no norma de paralizar la construcción de un muro de cuatro metros en el Puerto de Bilbao.

El grupo juntero EH Bildu, del que ha partido esta iniciativa, ha realizado un símil entre este muro de cuatro metros construido por la Autoridad Portuaria de Bilbao “con la intención de obstaculizar la entrada de polizones” en la entrada al ferry Bilbao- Portsmouth, y los muros de Melilla y de México. Esta propuesta ha sido secundada por Podemos Bizkaia, quien ha alegado que esta se trataba de una “cuestión de Derechos Humanos” puesto que “hay gente que busca un futuro mejor”. Por su parte el Grupo Mixto ha declarado que estas personas, “la mayoría procedentes de Albania”, no vienen a Bizkaia, sino que “somos un lugar de paso puesto que van a Gran Bretaña por la vía ilegal, colándose en el ferry”.

El grupo Socialistas Vascos ha argumentado que este muro, “antideslizante y anticortes”, se trata de una medida “desde un punto humanitario y de seguridad”, puesto que el Puerto de Bilbao se trata de “una infraestructura de punto crítico”.

La iniciativa ha contado con los votos de Podemos Bizkaia y de sus propulsores, EH Bildu, por lo que finalmente ha sido desestimada.

POLÍTICAS TRANSVERSALES EN LA WEB BIZKAIA.EUS

Por otra parte la comisión ha abordado una cuestión propuesta por EH Bildu referente a la estructuración de la página web bizkaia.eus y a la posibilidad de destacar las políticas transversales, alegando que esta “no es la más adecuada”. Respecto a este punto Ibone Bengoetxea, diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, ha asegurado que “una cosa son las políticas transversales y otra cómo se ubican”. Ha explicado que la reciente renovación de la web tiene como objetivo la sencillez y la utilidad. No obstante, se ha comprometido a añadir una breve descripción en las publicaciones que favorezcan la igualdad entre hombres y mujeres.

LEY DE EXCLUSIÓN DE LOS JUDIOS DE BALMASEDA DE 1486

Arturo Aldecoa, por parte del Grupo Mixto, ha presentado una propuesta de no norma para mostrar desacuerdo con una Ley admitida por las Juntas de Bizkaia en 1486 que aceptaba excluir a toda persona de creencia judía de Balmaseda. A excepción del grupo de Socialistas Vascos,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

quienes han asegurado que este reconocimiento podría servir de manera general para admitir casos similares, el resto de grupos se ha mostrado en contra del “revisionismo histórico”, por lo que ha sido rechazada.

REDUCCIÓN DEL NÚMERO DE VEHÍCULOS OFICIALES

La iniciativa, a manos del Grupo Popular Vasco, buscaba disminuir la flota de vehículos – que actualmente asciende a 33- del servicio de Altos Cargos de la Excma. Diputación Foral. Para argumentar esta petición, su portavoz, Javier Ruiz Egaña, ha hecho referencia a otras provincias y comunidades como las Islas Baleares donde cuentan con 25 vehículos. Tanto el grupo de Socialistas Vascos como el de Nacionalistas Vascos, han destacado la reducción que se ha realizado tanto en los primeros años de este mandato como en el anterior. Por otra parte el Grupo Mixto ha propuesto, más allá de la proposición de no norma, realizar un estudio que determine parámetros como las horas en las que más se utilizan esos coches o los lugares a los que acuden, con el fin de “intentar optimizar”.

INFORME ANUAL A LAS JUNTAS DE LAS CLAUSULAS DE CONTRATACIÓN

El grupo EH Bildu ha hecho referencia a una decisión tomada por el Tribunal Supremo en 2013 que eximía a los Consejos de Gobierno de la obligatoriedad de remitir a las Juntas Generales de Bizkaia los informes de control de los órganos de contratación. El grupo juntero ha propuesto retomar esta práctica. No obstante, el grupo Socialistas Vascos y el de Nacionalistas Vascos se ha mostrado contrario a esta proposición alegando que “guste o no nos guste” la decisión del Tribunal Supremo lo impide. Asimismo, el grupo de Socialistas Vascos ha explicado que estos contratos se encuentran colgados en la página web, cumpliendo ese requerimiento de transparencia. La propuesta, finalmente, ha sido rechazada.